

Antonio Arrue: *Idatziak eta Hitzaldiak* liburuaren aurkezpena

Egun on:

Ongi etorriak lehenengo eta behin Antonio Arrue euskaltzain zenaren etxekoei. Buenos días a todos y, en especial, a los familiares de Antonio Arrue. Hiru urte eta erdi joan dira, zuekin zueneko amaren hileta-elizkizunean liburu hau argitaratzeko konpromisoa hartu genuenetik.

Artean, liburuaren bultzatzaile nagusia, Antonio Zavala hain zuzen, ez dago lur honetan. Xabierren hilobiratu genuen urte berriarekin. Hilobiratu esan dut, eta hori berresten dut, lekukoak izan ginelako gu guztiok, haren gorpua kanposantuan ehortzia izan zenean.

Han ginen euskaldun eta euskaltzale asko, eta han berbatu ginen Josemari Iriondo eta biok gaur aurkezten den liburu honi azkena emateko.

Luze joan da, egia esan, liburu honen historia. Ustekabekoa ere bai, neurri handi batean, horretara bildu baitziren Arrue eta Zavala, biak Euskaltzaindiaren historian esanguratsu eta eragile.

Ez naiz ni luzatuko Antonio Zavalak maisuki azaltzen duen liburuaren historiari buruz. Bai, ordea, liburu honetarako aspalditik nuen gogoaren aldetik. Izan ere, Xabierren galdetu nion behin Zavalari Arruerengatik, hura, ni bezalaxe, legelaria baitzen, eta, gainera, idazle trebatu eta saiatua euskaraz.

Zeharka ezagutzen nituen Arrueren zertzeladak, euskaltzainkide batzuek, Xabier Kintanak esaterako, esanak eta kontatuak. Zuzeneko ezaupidea eman zidaten, aldiz, hark idatzitako artikuluek, euskal literatura zela eta.

Laster eskuratu nuen Arrueren *Jan-edanak* liburua. Testuak, hala ere, ez ninduan osorik bete, han falta baitziren literatura eta bestelako gaien testuak, nik neuk behintzat, aldizkariz aldizkari bilatu eta fotokopiatuta nituenak.

Horrexegatik liluratu ninduan Antonio Zavalak laster batean helarazi zidan aspaldiko karpeta hark. Gero, Nafarroatik Nafarroara, Euskaltzaindiaren ordezkaritza nafarrak (eskerrak Gema Insaustiri, eskerrak Andres Iñigori) egungo sistema informatikoetara ekarri zituen karpeta haien testuak, eta Antonio Zavalaren zuzenketak jaso zituen, Josemari Iriondoren arartekotza paregabearekin.

Falta zen argitaratzeko lekua, eta Euskaltzaindiak *Euskaltzainak* bilduma jarri zuen beren-beregi horretarako. Esan eta egin, hona hemen, gure eskuetan, liburua.

Egin ditzadan, alabaina, bizpahiru ohar, argitalpen honen gainean; eta esan dezadan, bidenabar, testuen bilduma Antonio Zavalak egina dela, berak ohi zuen bezala, eta testuen grafia oso-osorik gorde dela, argitaratu ziren moduan. Zuzenketarik ez dugu egin, ezinbestekoak izan ezik, alegia, errakuntza tipografikoak eta begien bistakoak.

Hala nahi izan zuen Antonio Zavalak, eta horixe errespetatu dugu guk ere, ondotxo dakigulako testu horiek euren gaurkotasunari eusten diotela, eta gerraoste luze eta latz zabal haren testigantza ematen digutela, euskararen eta euskal kulturaren aldetik.

Txukun darabil euskara Arruek; beste horrenbeste Zavalak. Euren ideiei muzinik egin gabe, ederto jakin zuten biek euskararen mesederako lana egiten eta ontzen.

Horrexegatik zor zion Euskaltzaindiak Arrueri halako aitortza, gaur, zati batez bederen, ordaindu nahi duguna. Ordainketa horren

laguntzaile eta abal-emaile, Antonio Zavala. Bi-biak oroituz, hona Arrueren ekarria berriro argitaratua.

Unas palabras en castellano para la familia y los que no conocen la lengua vasca. Unas palabras para resaltar que, en este libro en euskera y castellano, se reúnen los trabajos literarios y una parte de las conferencias gastronómicas de quien fue académico de número de Euskaltzaindia, Antonio Arrue, recopilados por otro académico de número y colaborador suyo, Antonio Zavala, recientemente desaparecido.

Es un libro que recoge los artículos de Antonio Arrue, tal y como aparecieron en su día, respetando así los deseos de Antonio Zavala. Es un libro que, además, a través de un euskera muy bien trenzado, sirve para incidir en el esfuerzo literario de Antonio Arrue tanto con los clásicos vascos (Mogel, Aguirre, Gerriko...) como con los temas de la literatura más moderna y sus aficiones gastronómicas.

A mí, como jurista y miembro de Euskaltzaindia, siempre me ha llamado la atención el trabajo de aquel otro jurista y euskaltzaina que fue Antonio Arrue, y de ahí mi satisfacción al ver que lo que una vez fueron para mí fotocopias de sus artículos dispersos en distintas revistas del país y toda una carpeta de archivo de Aita Zavala, es hoy un libro que nos permitirá que perdure de forma conjunta la memoria de dos grandes cultivadores de lo vasco, Antonio Arrue y Antonio Zavala.

Muchas gracias a todos, mila esker,

Donostian, 2009ko apirilaren 3an

Andres Urrutia